

---

# MAISU BILLA

---

JUAN IGNACIO URANGA EUZKALZALEARI:

**M**AIŠU billa» deritzan irakurkizuna irakurrita gai berean zerbait esateko zalea jayo zaidak.

Nik ondo etzakiat baña maišutza edo irakaspentza egipen gaitza dalakoan zeaukat ta jakinduritzta adinbat gaitzagotzat.

Nere eritzia azalduko badiyat, aurtengo periyetan ikusi diyatan jasopen bat adiraziko diyat.

Periyetako barraka edo echoletako batean, gizon gozeti batek, bezte elikagarririk ezta, belar legorra abotik irtetzeraño jaten zikala irudikatzen zikan.

Baña, ¡ene!, bere eginkizun artan ari ukanik onenean, belar jabeak achitzen zikan ta abotik zeriyoan belar zirrindatik teinka ta oraka, zenbait sasi-jakintsuen buru-kaskarrak baño utsago sabela lagatzen ziokan.

Berau gertatu oizayetek aipatu dizkiyatan sasi-jakintsueri; jakin-gozeak bezte ñoren ganbelan elikatzer a eraman dizkikan aldi orotan.

Idaztegiira joanta izkiak erruz ta anitz ilinchitzea, jakinduria ilinchitzea dalakoan joan oidituk, baña, azkenerako beren buruak, periyetako gozetiaren sabela baño urriyago arkitu oidizkitek.

Sasi-jakintsu oyetan tallu ta era askotarakoak zieudek; zenbaitzuek badituk, buruan urre meatza ditekala uzte ditekianak; badituk jakitez pustuta lertzeko zorian arkitzen diranak, eta badituk beren eretziak, gurdi-pertika baño lerdénago ta zuzénago dirala ziñeztuta bizi ditukanak. Baña, ongi ezagutzen dizkikan guziak, españetara far-irria azal-

duaz, ¡tati! ezan oi-zietek. Ez dek naikoa adiñ urrea nai izatea urrea-  
ren jabe izateko.

Erleak, erluntzatik loretegiara osterea eginta bezterik gabe, eztiya  
zeriok, baña astoak loreak ugari janakatik, ez dik ezti jariyoric.

Lateraz (latinez) banenkik eta edorrek ere baenkik, astapuzkeri  
batzuek ezarriko nizkikan izkiratz onetan, zenbait euskal-izkiratzallek,  
beren izkiratz-buruetan ezarri oiditekan antzera, baña, lan orretarako  
belarriyak luziegiyak zeauzkat eta illea zurda bañore lakarragoa.

Gordiñik jan ditekean sororik danik eztiat uzte, baña belar gordiña  
jan izan ditekan ankabikoak izan ditukala, bai; etan bat Nabuko erregea  
izan ukan, *hebreo-tarren* edestiak dasanez.

Belarra edo nabua (arbiya) jaten zikalako *nabu-ko* deituko ziotekan  
nozki.

Aipatzen dekan neurtiz-gayak zer jardunik asko zeaukak, ta orain-  
goakatik ez diyat bezterik esango eze, beren egikerari begiratzen zayo-  
kan baño obetoago begiratuko balitzayokek, musa euskaldunak atsegin  
baizik ez likekiala izango, ta zenbaiten idaztegitan baño, bezteren baso-  
berezietan, neurtizketa chukunki astartzeko erratz obiak baditukala;  
garbitazunak kalterik etzeukak, batez ere gure ele ederraren onerako  
baldin badek.

Ekiñaldi batean egiteko naikoa dala zeritzuat eta beronekin bezte  
bat arteko agurra igortzen diat.

Bizkitartean, ez adi lokartu ta jarraituyok azitako lanari aurretiryoko  
kemen berakin alper korotz utsa aizala iñork esan ez dezan.

Lagun zar bat nun dekan badakik eta diru emate ez bezte guziak  
aginduizkak

JOSÉ ELIZONDO-RI

